



# ETXEKO LANGILEA ELKARRIZKETA euskaraz

**Maria (izen fiktizioa) Praguaytik etorri zen duela urte batzuk eta Lekeitioko etxe batean dihardu etxeko langile modura. Azaldu digun moduan “Etorkina izanik eta unibertsitate ikasketarik gabe, erraza da etorri eta etxe langile bezala bukatzea, nire herrialdeko egoera ekonomikoak eta hemengo lan aukera hobeei bultzatuta.” Pertsona heldu baten zaintzak burutzea, hura esnatu, gosaria eman, konpainia egin, bazkaltzen eman, paseoa aterata... bezalako jarduerak barnebiltzen ditu, garbiketa lanak ere egiten ditu. Mariak guzti hori egin izan du orain arte astelehenetik larunbatera, lanaldi erdian eta 500 euro kobratzen kontraturik gabe, ez baitu dokumentaziorik. Koronabirusaren krisiak aldiz, zeharo aldatu du bere egoera.**

**-Nola aldatu dira zure lana eta lan baldintzak koronabirusaren krisia hasi zenetik?**

Momentuz etxera bidali naute eta esan didate lanordu hauek ordainduko dizkidatela baina, kontraturik ez izatean, zalantzarria da beteko duten ala ez. Ez daukat nire soldatarekiko bermerik. Emakume migratzaileon egoera zaurgarri honen aurrean, pertsona solidario eta sentiberak izan daitezela espero dut [nagusia].

**-Zer eragin du emakume izateak lan sektore honetan?**

Emakume garen etxe-langileoi etxeko garbiketa ere burutzea eskatzen zaigula da gehien nabaritzen dudana, zeina ez den gure eginbeharretan sartzen. Oraindik ez dut ikusi helduen zaintza lanetan diharduen gizonen enplegu berdineko emakumeok egiten dugun beste lan egiten.

**-Lan sektore honi dagokionez, nola ikusten duzu instituzioen partetik ematen diren zerbitzu eta laguntzak? Nahikoa dira?**

Udaletxearen laguntzak nahiko kaskarrak dira, ez dituzte gure beharrianak asetzen: protokoloak, 200 euro hilean hiruhileko batean zehar, baina, hau gutxi balitz, gero itzuli egin behar dira, eta mailegu bat izaten bukatzen du. Baina kontratu gabe egonik ezin dudanez kotizatu, ez zaizkit diru-laguntzak egokitzen. Elikagai bankuarekiko ez dut kexarik.

**-Zein dira zuen lan baldintzei dagokionez exijitzen dituzuen aldarriak?**

Normaltasunera bueltatzean gure lanpostuak bermatzea eta baita soldata mantentzea lanera joan ezin garen garai hauetan.